

Kutxabankek Ricardo del Corte Elduayen Administrazio Kontseiluko kide izendatu du

- **Batzorde Orokorrak beren karguetan zazpi kontseilari dominikal eta independente berritza ere adostu du**

2020ko ekainaren 25ean. Kutxabanken Akziodunen Batzorde Orokorrak Ricardo del Corte Elduayen Bankuko Administrazio Kontseiluko kide izendatu du Kutxa Banku Fundazioaren ordezkartzan.

Ricardo del Corte Elduayenek Jesús María Herrasti ordezkatzuz hartu du postua, eta azken honek eginiko lana goretsi egin du gobernu organo honek.

Bilera horretan bertan, Akziodunen Batzorde Orokorrak ordezkari diren Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza, Alexander Bidetxea Lartategi eta Josu de Ortuondo Larrea kontseilari dominikalak berritza adostu du, bai eta M^a. Victoria Mendia Lasa, Roxana Meda Inoriza, M^a. Manuela Escribano Riego eta Antonio Villar Vitores kontseilari independenteak ere.

Ricardo del Corte Elduayen informatikan lizentziatua da, eta Deustuko Unibertsitatean softwareko Masterra du. 25 urtetik gorako ibilbide profesionala du, eta urteotan teknologien esparruko enpresetan zuzendaritza eta ardura-postuetako beharrak egin ditu, bai arlo publikoan zein pribatuan. Eurohelp Consulting enpresako zuzendari nagusia izan da, Dominion TI-ko zuzendari teknikoa, eta IZFE-ko (Gipuzkoako Foru Aldundiko informatika sozietatea) Estrategia eta Eraldaketa digitaleko Arduraduna. Gaur egun postu horretan jarraitzen du.